

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko martxoaren 25a. VIII. urtea. 2.199. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Kultur ekitaldiek topaleku berria izango dute Anoetan, Mikelasagasti

Udal ordezkariak gaur inauguratuko dute auditoriuma 19:00etatik aurrera; Loatzoko dultzaineroek emango diote hasiera atek zabaltzeko ekitaldiari

Mikelasagastiko areto nagusian 120 laguntzako toki dago, eta honetaz gain, bilera gela, aldagelak, biltegia, komunak, kontrol gela eta takilak ditu 6



Bertako toponimia kontuan hartuz jarri diote Mikelasagasti izena auditoriumari. E. MAIZ

Gorka Bilbao Ama Say taldeko partaidea



«Gure hitzekin barruko konplexuak ateratzen ditugu»

Elkarrizketa 4

Jone Lozanoren atxiloketa salatzeke lanuzteak babes «zabala» jaso du

Leitzan eta Areson bi orduko greba egin zuten atzo eguerdian; era berean, elkarretaratzeak ere egin zituzten hainbat tokitan 5



Herri hasieran dagoen biribilgunean ere egin zuten elkarretaratzea. M. UGARTEMENDIA



NUTRIZIO KONTSULTAK:

Asteartero eta ostegunero eskaintzen dira 'DietaFacil' etxearen eskutik. Laser depilazioa (TAHE). Prezio ezin hobekak.

farmadenda
_parafarmazia

lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@gmail.com



Espainiako justizia ez da fidagarria eskualdeko hainbat eragilerentzat

A. Imaz-I. Garcia-I. Urkizu

Espainiako Auzitegi Gorenak Sortu alderdia ez erregistratzea erabaki zuen herenegun. Atzo berri, Espainiako Justizia ministroak Sortuk alderdi gisa ezingo duela maiztzeke bozetan izan esan zuen, nahiz eta Espainiako Konstituzio epaitegian erabakiaren aurkako helegitea jarri; ebaizpen berri baterako denborarik ez litzatekeelako egongo.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko alderdi politiko eta eragileak, ez dira ados jarri erabakia aztertze-ko uanean. Hala eta guztiz ere, gehienek, epaiarekiko desadostasuna azaldu dute. Badira ezker abertzalera begiratu dutenak ere, urrats berriak eskatuz gainera. Amnistiaren Aldeko Mugimen-

duk adibidez, urrats berriez hitz egin dute, Euskal Herrian atzera bueltarik ez duen ziklo politiko berri baten aurrean aurkitzen gara esatearekin batera; «Azken hilabeteetan munduan eman diren altxamenduek aintzat hartze-ko lezioak utzi dizkigute. Herritarren mobilizazioak eta altxamenduak oso indartsuak izan daitezke, diktadurarik latzenak botatzeko adinakoa. Prozesu demokratikoa geldiezina izango da herritarren babesa ondo antolatu-rrats berriak emateko garaia da».

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak hainbat eragilerekin hitz egin du, Auzitegi Gorenaren erabakiaren inguruan euren iritzia jakiteko.



«Euskal Herriaren aurka hartutako erabakia da, ez soilik Sorturen aurkako»

Anton Izagirre

Ezker abertzalea

«Atera den epaia erabat politikoa da; estatuak aurretik erabat prestatua eta diseinatua zuen dinamika bati erantzuten dio. Beste behin, garbi geratu da

Euskal Herriaren aurka hartutako erabakia dela, ez soilik Ezker abertzalearen kontra, Sorturen kontra edo ilegalizatua egon den eta dagoen sektorearen kontra. Estatuak oso ondo daki Euskal Herrian aldaketa politikoa eta sozialen bidetik hartutako bidea atzerako bueltarik ez duena dela. Nolabait, fretoa jarri nahi dio prozesu horri, eta berak hartu nahi du gidaritza, prozesu hori eteteko.

Garbi dago, estatuaren borondatearen aurka baldin bada ere, Ezker abertzalea hurrengo hauteskondeetan egongo dela. Horretarako eman beharreko urratsak ematen ari gara, eta emango ditugu, eta epe motzean ikusiko ditugu horren fruituak».



«Auzitegi Gorenak berriro ezezkoarekin erantzun digu»

Jokin Bildarratz

EAJ

«Alderdien legearen aurka azaldu gara beti eta baita ilegalizazio prozesu guztien kontra. Momentu honetan, bai bazegoela ezjakintasun eta itxaropen bat gauzak alda ote zitezkeen; azken finean, denok bizitzen ari gara Euskal Herri mailan beste giro berri bat, baina ikusi da oraingoz behintzat, Auzitegi Gorenak berriro ezezkoa erantzun digula. Ikusi beharko da hemen dik aurrera zein urrats emango dituen Ezker abertzaleak, eta zentzu horretan nola ahalbidetzen den guztiok nahi duguna. Hau da, gizarteak aurki dezala bere erakundeetan bere ideologiaren ordezkaritza».



«Auzitegi Gorenak esaten duenarekin ados gaude, bai orain eta baita duela lau urte ere»

Joxe Miguel Goikoetxea

UPN

«Gure postura ez da aldatu. Espainiako Auzitegi Gorenak esaten duenarekin ados egon behar gara, bai orain lau urte erabaki zuenarekin eta bai orain erabakitakoarekin. Orain lau urte toki batzuetan legeztatzen, Leitzan bertan, eta beste batzuetan ez. Nik esan diet zuzenean beraien esku dagoela; zer egin behar duten badakite. Azkenik, esan dezakedana zera da, UPNtik zain gaudela zer gertatuko den ikusteko».



«Beste behin, agerian utzi dute botere judiziala ez dela independentea»

Iñaki Irazabalbeitia

Aralar

«Aralarrek bere kontrakotasunik irmoena azaldu nahi du, Espainiako Auzitegi Gorenak hartu duen erabakiaren aurrean. Beste behin, agerian utzi digute botere judiziala ez dela independentea eta arrazoizko politikoetan oinarrituta hartzen dituela erabakiak. Erabakia hanka sartze larria da. Alderdien lege antidemokratikoaren aurka gaude eta giza eskubide guztiak errespetatzea eskatzen dugu, eskubide zibil eta politikokoak barne».



«Albiste tamalgarria da; presiopean hartutako erabakia da»

Onintza Lasa

EA

«Oso albiste txarra da, benetan tamalgarria. Gure ustez, presiopean hartutako erabaki bat da. Politika giro nahasi horrek zerian. Alde horretatik, ausardia eskatzen dugu normalizatorako eta bakoerako bidean. Hala eta guztiz ere, nahiz eta albiste txarra izan, oso garbi daukagu egiten ari den bideak atzera bueltarik ez duela. Azkenean, normalizatorako eta bakegintzarako bideak egingo dira, batzuk oztipoak jartzen ari diren arren».



«Epaitegiek esaten dutena errespetatu egiten dugu»

Oscar Renedo

PSE-EE

«Beti bezala, epaitegiek esaten dutena errespetatu egiten dugu. Gure ildo hori da. Batzuk saiatu dira nahasmena sortzen, epai politikoa izan dela esanaz, baina epaitegiek erabakitzen dutenean beti erabaki judiziala izaten da. Sistema demokratiko batean gaude eta guk ezagutzen ditugu horrek berarekin dituen arauak. Etorkizunean ere berdin jarraituko dugu, hau da, epaitegiek hartzen dituzten erabakiak errespetatzen».



«Epaia aho batez ez dutela hartu azpimarratuko nuke»

Garbiñe Biurrun

Epailea

«Oraindik ez dakigu zein oinarri juridiko erabaki duten erabaki hori hartzeko, sententzia ez baitute publiko egin oraindik. Zabaldu denaren arabera, epaia aho batez ez dutela hartu azpimarratuko nuke. Dirudienez gainera, hiru magistratuk epai paralelo emango dute, eta hori oso garrantzitsua da. Legalak izateko arrazoizko bideak badirela esan nahi du horrek. Denboraren poderioz, ez dakit Sortu edo beste izen batekin, baina gizartearen egongo direla uste dut. Ez dut uste atzera bueltarik egongo denik, eta egindako min guztiagatik gizarteari hori zortu diotela iruditzen zait».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak lanpostu hau bete behar du:

BANATZAILEA/BUZONEATZAILEA LEITZAN

Lan baldintzak:
Goizeko 7:00etatik 11:00etara.
Astean 4 egun. Asteartetik ostiralera.

Interesatuak deitu lehenbailehen
943-30 35 33 telefono zenbakira.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Kapitalismoak kaltetutako bizipenak» ezagutuko dituzte bihar

Bizikleta martxaz gain, bazkaria eta bertsolariak ere izango dira, arratsaldeko aldarrikapenen aurretik

I. Urkizu

Bizikleta martxarekin hasi eta pintxo eta sagardo artean amaituko da Herria Abianen aldeketa sozialaren aldeko eguna, bihar, Tolosan.

Goizeko 10:00etan abiatuko da bizikleta martxa Trianguloa plazatik, kapitalismoaren mapa jarraituz. Kapitalismoaren eraginpean egon diren hainbat talderekin harremanetan jarri dira antolatzaileak, eta talde hauetako bakoitzak minutu batzuek azalpenak emango ditu toki desberdinetan: Emusi enpresakoak, Inpernu gaztetxe desalojatuak, AHTaren eraginak jasaten ari direnak, eta abar. Ibilbidean barrena leku desberdinetan geratuz burutuko dituzte azalpentxo hauek.

Bestalde, goiz osoan zehar ere, pintxoak nahiz sagardoa eskuragarri izango dira Trianguloan, eta talde desberdinek ere euren materiala han izango dute.

Eguerdioko 13:00etan elkarretaratzea izango da Trianguloan,



Iñaki Gil de San Vicente, asteazkeneko hitzaldian. A. IMAZ

Oargi elkartera bazkaltzera joan aurretik. Bazkalondoan, berriz, bertsolariak izango dira Zerkausian, 16:30ean, eta 18:00etan manifestazioa egingo dute Tolosan barrera.

Herria Abianek antolatutako Aldaketa sozialaren aldeko egun hau bukatzeko, eta goiz osoan ari zirenean moduan, manifestazioaren ondoren pintxoak eta sagardoa izango dira Trianguloan.

Kirol eta kultura estreinaldiak izango dira asteburuan

Herritarrek skate park berriaz gozatu ahal izango dute, bihartik aurrera, Usabal kiroledegian

ñagak bere azken liburua aurkeztuko du Pleno Aretoan: *Agerkari etno-historikoa*.

Bihar, berriz, 11:00etan, *Boga berria* emakume arraunlarien erakusketa aurkeztuko dute Aranburu jauregian. Bestalde,

skate park berriaren inaugurazioa izango da 12:00etan Usabalen, eta ordu berean, kantu jira hasiko da Tonto kaletik. Arratsaldean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bi saio izango dira Leidor aretoan.

I. Urkizu

Kultura nahiz kirol munduko inaugurazio eta aurkezpenez bete dator asteburua Tolosara.

Gaurtik hasita, 19:00etan, Naroa Armendariz artistaren erakusketa inauguratuko dute Aranburu jauregian, Berdintasun sailaren laguntzaz. Ordu erdi beranduago, eta leku berean, Quémadura antzerki taldeak *Como como coco me descoco, un estriptis mental* emanaldia eskainiko du. Era berean, arratsaldeko 19:30ean, Juan Garmendia Larra-

Irudia



ZUBIA EGITEKO HITZARMENA

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, Oria ibaiaren gainean zubi berri bat, eta lau beso-ko biribilgunea eraikitzeko. Lan hau N-1 errepidearen Tolosako iparraldeko irteeraren eta GI-3650 errepidearen (Irura-Anoeta-Tolosa) arteko lotura hobetze aldera burutuko dute, Arriarango gasolindegia-aren alboan. Lan hauetarako, Foru Aldundiak 5,5 milioi euroko diru laguntza emango dio udalari. A. IMAZ

Anbulatorioaren aldeko ekitaldien berri emango dute

‘Tolosaldea Osasun Publikoaren alde’ taldearen nondik norakoak azalduko dizkiete bertaratuak

I. Urkizu

Tolosako espezialitateen ambulatorioa pribatizatzearen asmoaren aurka protesta egiteko sorturiko taldeak, informazio bilera antolatu du bihar goizezako.

Tolosaldea Osasun Publikoaren alde deiturapean koordina-

kundea sortu berri dute, eta ahalik eta herritar gehien biltzea helburu dutenez, 11:00etan Eduardo Moco-roa musika eskolan ospatuko duten bilerarako deia luzatu nahi diete herritar guztiei.

Bileran, elkarte, alderi politiko, sindikatu nahiz norbanakoaren artean sortu duten taldea lanean zein arrazoirengatik hasi den azalduko dute, besteak beste.

Era berean, espezialitateen ambulatorioa ixtearen aurka protesta egiteko antolatutako nahi dituzten aldarrikapen ekitaldi eta manifestazioen egutegia ere aurkeztuko dute, bertaratuaren aurrean.

ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA

Goierriko Eskola
Ate Irekien Jardunaldia
Martxoak 26, Larunbata, 10:30ean

Gure Batxilergoko eskeintza akademikoa ezagutu.

www.zorroztuzureetorkizuna.com
Granja auzoa, z/g • ORDIZIA • 943 880 062

Goierriko eskola

Imanol Garcia Tolosa

Asteburu honetan bi kontzertu izango dira Bonberenean. Gaur, 22:30ean, Reverendo Parker eta Motorsex taldeek joko dute. Bihar, kontzertu berezia izango da. Ama Say taldeak bere azken diskoa, *Ren Fan*, aurkeztuko du Tolosan. Bonberenea Ekintzakekin grabatu du talde bizkaitarrak. 22:30ean hasiko da kontzertua. Beste bi talde ere ariko dira: Musergo eta Eten.

Ama Say hamasei urte egon da diskorik atera gabe eta, orain gutxi, berriro berpiztu dute Ibon eta Gorka Bilbao anaiek. Ibon taldeko ahotsa da, eta gitarra eta pianoa jotzen ditu. Gorkak bateria eta perkusioak jotzen ditu. Taldean beraiekin daude Gorka Morero gitarra jotzailea eta Mikel Gonzalez baxu jotzailea. Diskoan parte hartu du Joakin Pikaza gitarra jotzaileak. Gontzal Bilbaok (Portugalete, 1966) erantzun ditu elkarriketako galderak.

Zerk builtzatu dizue hainbeste urte ondoren disko bat berriro grabatzera?

2008an elkartu ginen berriro, kontzertuak emateko. Kontzertuak oso ondo joan ziren; gu oso pozik aritu ginen. Eta pentsatzen hasi ginen disko berri bat egitea. Aurreko negu osoan eta udaberrian prestatzen aritu gara. Gero udan joan ginen grabatzera, batez ere abuztuan. Prozesua luzea eta konplexua izan da, baina azkenean lortu dugu.

Zergatik izan da luzea eta konplexua grabaketa?

Gure egoera oso berezia da. Ibon, *Topo*, Bartzelonan bizi da aspalditik. Horregatik, elkartzeko, entseguak egiteko, abestiak prestatzeko... zaila izan da.

Zer dela eta erabaki zenuten Bonberenea Ekintzakekin grabatzea?

Nik, behintzat, aspaldidanik sekulako harremana dut Bonbereneako jendearekin. Eta gainera, bere baloreak, gaur egunean, sekulakoak dira. Nik pentsatzen dut horrelako baloreak edozein lekutan egon behar direla, baina zoritxarrez ez daude. Guretzat ohore bat da Bonberenearekin egotea: sekulako lana egiten ari dira, programazio bikainak...

Larunbateko kontzertua, beraz, berezia izango da.

Bonberenea gure etxea da. Gu ez-



Gorka Morero, Mikel Gonzalez, Ibon 'Topo' Bilbao eta Gontzal Bilbao. HITZA

Gorka Bilbao > Ama Say taldeko bateria jotzailea

Bonberenea Ekintzakekin 'Ren Fan' diskoa grabatu du Ama Say taldeak. Bihar, disko berriaren laugarren kontzertua emango dute, Bonberenean. «Oso identifikatuta sentitzen gara beraiekin», diote.

«Tolosaldean beti izan dugu arrakasta; etxean bezala egoten gara»

kerraldekoak gara, baina tolosalderakoak ere sentitzen gara. Ama Say Bonberenea da eta uste dut Bonberenea ere Ama Say dela. Horregatik oso pozik gaude beraiekin, oso identifikatuta sentitzen gara.

Zein harrera izaten dizue hemen?

1990. hamarkadan hasi ginen kontzertuak ematen. Tolosaldean beti izan dugu arrakasta. Entzuleak ditugu bertan, jarraitzaileak. Horregatik diot etxean bezala gaudela. Etxean jokaten dugu. Sekulako kontzertua izango dela espero dugu, sekulako giroa egongo da. Gainera, gure ekarpena egingo dugu. Gaur egun Bonberenea sekulako arazoak izaten ari da. Beraiei laguntza ematea oso garrantzitsua da.

Guk uste dugu Bonberenea dagoen lekuan egon behar dela, bere jendearekin, bere politikarekin, bere programazioarekin, eta bere lanarekin. Gure kontzertua izango da, baina baita ere Bonberenearen kontzertua.

Disko berriarekin egin dituzue emanaldietan zere erantzun jaso duzue?

Hiru egin ditugu: Gasteizen, Durangon eta Bilboko Kafe Antzokian. Kontzertu gutxi egingo ditugu. Horien ondoren etena izango dugu eta gero ikusiko dugu zer egingo dugun. Jendearen erantzuna oso polita izan da. Gurekin jotzen dute Lisaböko *Txap*, Musergoko Maita..., eta guretzat plazer ederra da horrelako musikariarekin egotea. Gu oso pozik gaude.

Musikaren aldetik, estilo berdinarekin jarraitzen duzue?

Urte asko pasatu dira. Hori gizar-tean nabaritzen da, eta musikan ere bai. Gure izaeran ere nabaritzen da. Diskoa motelagoa da, baina nire ustez borobilagoa, biziagoa, ilunagoa agian.

Abestien hitzetan gaur egungo hainbat egoerei buruz arizate.

Guretzat oso garrantzitsuak dira. Zerbait egin behar dugu gizarte hau babesteko eta hobetzeko. Horregatik, horrelako hitzak egin ditugu, batez ere barruko konplexuak ateratzeko, gorroto hori ateratzeko. Norbaitek entzuten bada eta ondo iruditzen bazaio, hobeto. Ikusten duguna ez zaigu batere gustatzen.

Eta zerez dago ondo?

Monster Kaos abestia, adibidez, leloan esaten dugu: «Beti esanez rise to power», hau da, beti esanez boterera igo zaitez. Baloreen kontua da. Irakaslea naiz eta ezagutzen dut nolakoak diren gaur egungo gazteak. Ez dira hobeagoak edo txarragoak, ezberdinak dira. Bonbereneako gazteen jarrera asko gustatzen zait. Beraiei baloreak aipatzeko modukoak dira. Gure abestia hortik doa. Egungo baloreak oso latzak direnez, zerbait egin behar dugu. Egungo osoan sofian etzanda egon ordez, ezer pentsatu gabe, zerbait egin behar dugu hobetzeko, batez ere gure seme-alabei zerbait hobeago emateko.

Euskaraz eta ingelesez abesten jarraitzen duzue.

Hori gure betiko marka da. Aho-tsa ere musika tresna dela pentsatzen dugu. Horregatik erabiltzen dugu joko fonetiko bezala.

Azken bi diskoen arteko denbora parte horretan zertan aritu zarete, eta nola ikusi duzue orokorrean musikaren bilakera?

Musika jotzen aritu gara urte horietan. Zein taldean egon gara, eta hiru disko grabatu genituen. Baina oso lasai egon gara. Musikaren aldetik asko aldatu da egoera. Euskal Herrian, gaur egungo maila altuagoa da. Sekulako taldeak daude, azpiegitura gehiago daude musika egiteko. Baina talde berri batek bere musika kalera ateratzea zailagoa du. Atzeritarrak direnak hona etortzen dira jotzera. Horregatik talde berri baten kontzertuak ematea zailagoa da.

Musikari lotuta jarraitu duzue, beraz.

Gorka Morero Yakuzikoa da. Mikel, baxu jotzailea, eta biak, Zein taldean egon gara. Nire anaia, Ibon, musika egiten egon da, baina bere kabuz, bere etxean. Guretzat musika pasio bat da. Asko zaintzen dugu eta denbora daukagunean bideratzen dugu.

Txinauriak diskoan parte hartu duzue ere. Nolako izan da esperientzia?

Bidehutsen lana sekulakoa da, aipatzekoa. Gu oso harro gaude horrelako disko batean parte hartzeagatik. Guretzat Mikel Laboa beti izan da maisu handi bat. Horregatik izan da ohore bat horrelako disko batean parte hartzea.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

Euskaraena 2011ren baitan **Joseba Tapiaren** kontzertua

• **Izaskun Karrera (Tolosa)**

Martxoak 25 • Ostirala 20:30ean • Tolosako Topic-en




HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

Bertso afaria

• **Agustin Yarza (Amasa)**

Martxoak 25 • Ostirala 21:00etan
Villabonako Irrintzi Elkartearen



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

Quebec-eko Nicolas Pellerin et le Grands Hurleurs taldearen kontzertua

• **Maria Luisa Aranzasti (Anoeta)**

Martxoak 27 • Igandea • 19:00etan
Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean

saridunak

sarrerak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

→ **Laburrak****Autodefentsa feminista tailerra, gimnasioan**

LEITZA Autodefentsa feminista tailerra izango da, bihar, 10:00etatik 14:00etara Erleta eskolako gimnasioan. Autodefentsa feminista ez da lanketa fisikoa soilik, alde psikologiko eta teorikoagoak lantzen baitira. Tailerraren helburua emakumeak euren buruaren jabe izatea da. Emakumeen artean elkartasuna eta segurtasuna areagotu nahi dira tailerraren bidez.

Kantu jira eta kantu bazkia, bihar

TOLOSA Tolosa Kantari, eskal kantu jira bihar izango da. 12:00etan Tontokaletik abiatuko dira, Tolosako udal txistulariek lagunduta. 14:30ean, berri, kantu bazkia egingo da Oargi elkartearen, euskaraeneako programa zabalaren barruan.

Atxaga Passa Porta 2011 literatura jaialdian

ASTEASU Bernardo Atxagak Passa Porta 2011 literatura jaialdian parte hartuko du martxoaren 27an, Bruselan. Euskadik hiriburu belgikarrean duen Ordezkaritzak eta Etxepare Institutuak antolatutako Euskal Kultura eta Talentuaren I. Europar Zikloaren baitan izango da bertan. Atxagak *Parcours* saioan parte hartuko du, La Monnaie / De Munt operan, 11:00etatik 12:00etara.

Lanuzteak jarraipen «zabala» izan duela adierazi dute antolatzaileek

Gaur, azken ostirala izanik, 20:00etan Lopeneko atarian elkartuko dira elkarretaratzea egiteko

Maier Ugartemendia Leitza

Atzo eguerdian, Leitzako kaleetan ibili besterik ez zegoen, Jone Lozanoren atxiloketaren harira antolatutako lanuztearen eragina nabaritzeko. Jone Lozano aresoarra, astelehenean atxilotu zuen Frantziako Polizia.

Leitzako eta Aresoko herritarrek atxiloketaren aurrean beraien kezka agertu dute aste gutzian zehar, hainbat batzar eta elkarretaratze eginda. Horrez gain, atzo bi orduko lanuztea egin zuten «frantziar eta espainiar gobernuen errepresio politika alboratu dezaten exijitzeko eta eskenatoki berri baterantz urratsak eta konpromisoak eskatzeko».

Lanuztea «ia erabatekoa»

Lanuztea 12:00etatik 14:00etara izan zen. Gainera, 12:00etan elkarretaratzeak egin zituzten herriko hainbat gunetan, 20 pertsonako taldetan. Amnistiaren Aldeko Batzordearen esanetan, 120 pertsona inguru elkartu ziren guztira. Elkarretaratzean Guardia Civilaren presentzia «ikaragarria» izan dela ere salatu dute.

Lanuztearen jarraipena eta babesa «zabala» izan dela adierazi



Lanuztearen baitan egindako elkarretaratzeetan, 120 pertsona inguru elkartu ziren guztira. M. UGARTEMENDIA

dute. Leitzan, dendek, taberneak, banketxeek, industrialdeko enpresek, bankuek, ile apaindegiek, eta abarrek, bat egin zuten lanuztearekin. Gainera, Sarrio lantegi-ko enpresa batzordetik pasa zen Lozanoren askatasuna eskatzeko idatzia, eta bertako zenbait langile herrian egindako elkarretaratzetara joan ziren. Erleta eskolako ordezkariak, eskolan lanuztea egin ez zuten arren, familiari elkartasuna adierazteko idatzi bat

egin zuten. Bestalde, Areson ere, lanuzteak jarraipen «zabala» izan zuela adierazi zuten batzordeek. Guzti honez gain, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie azken egunetako batzar eta mobilizaziotan parte hartu duten herritarrei. Gaurko lanuzteak, «elkartasunaketenik ez duela» erakusten duela ere esan dute. Aurrera begira, elkartasun balorea erakusten jarraitzeko ere eskatu diete herritarrei;

gauzak poliki-poliki aldatzen ari baitira. Jone Lozanok oraindik inkomunikatuta jarraitzen duela ere gogorarazi nahi izan dute, epailearen aurretik pasatzeko zain dagoelarik.

Azkenik, gaur azken ostirala izanik, 20:00etan Lopeneko atarian izango den elkarretaratzean parte hartzeko deia egin dute. Algortan (Bizkaia) ere Lozanoren askatasuna eskatzeko manifestazioa ere egingo dute gaur.



harpidedun izateak badu saria

irabazleak

• Igor Ugalde (Villabona)

1 Dastatze menua

Iriarte Jatetxean
2 lagunentzako dastatze menua



Jose Mari Goikoetxea, 34 behea • Berrobi • Tel: 943-68 30 78

• Mila Otamendi (Tolosa)

2 Bazkia

Sarasola sagardotegian
2 lagunentzako bazkia



Asteasu • 943-69 02 83

• Mari Karmen Tolosa (Amezketta)

• Inazio Agirre (Tolosa)

3 Elastikoak

TTAK
2 elastiko



Neska M
Mutila M

• Axun Alkorta (Tolosa)

• Este Begiristain (Tolosa)

• Joseba Ruiz de Eguilaz (Tolosa)

4 Aquariuma

Donostiako Aquariumean
3 lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Mikelasagasti auditoriumak herriko leku faltari irtenbidea emango dio

Dagoeneko herritarrak erabiltzen ari diren eraikina, gaur 19:00etan inauguratuko dute udal ordezkariak

Eneritz Maiz Anoeta

Aspaldidanikoa da Anoeta herriak honelako eraikin baten beharra zuela. Kultur Etxerik ez izatean, ekitaldi guztiak udaltxeko pleno aretoan egin behar izaten zituzten, eta askotan, txiki geratu zaie. Hori dela eta, udal ordezkariak, auditoriuma edo erabilera anitza izango duen eraikina egitea erabaki zuten.

Astazaldi Arkitektura Estudioak egin du proiektua. 2008. urte amaieran hasi ziren obra hauekin, eta ia amaitu bazituzten ere, aire girotuaren instalakuntza osoa behar bezala jarri bitartean, ezin izan dute erabili.

Dagoeneko, Dantza Taldeak bertan egiten ditu entseguak, eta baita Loatzoko Musika Eskolako koroak eta txarangak ere. Helburua, erabilera anitzeko gela izatea dela argitu du alkateak. Eta herriko 12-16 urte bitarteko gazteen aisialdirako topaleku izateko egokia dela uste du. Hemendik aurrera egingo diren hainbat emanaldi edota hitzaldiek, leku berria izango dute, Anoetan.

Eszenatoki ederra prestatu dute. Eserlekuetan, 102 lagun sartzeko tokiak izango da. Era berean, bilera gela bat, aldagelak, komunak, biltegia, kontrol gela eta takila ere baditu. Bideo-proiektzioak eskaintzeko asmoa ere azaldu du udalak. Erabiltzeko moduan



102 lagun sartzeko lekua dago, eta besaukiak jartzea falta da. Goian, bilera eta kontrol gelak daude. E. MAIZ



Eszenatokia, dantza entseguetarako eta emanaldietarako prest dago. MAIZ

badago ere, «janzea» falta zaie eta aurrekontuekin lanean ari dira. Hau da, aulkiak eta proiektioetarako gela hornitzeko materiala erostea falta zaie. Dantzarako, ispilua eta barrak jarri dituzte. Gastuei aurre egiteko berriz, Estatutik etorritako laguntzak

baliatu dituzte. Eta 2010. urtean, Foru Aldundikoak, gazte ekipamendurako 16.000 euroko diru laguntza eman zuen. Gainerakoa, Udalak zuen aurrezkitik jarri dute. Bertako toponimia kontuan hartuz jarri diote izena. Udalak, duela urte batzuk, baserria eta lu-

rrak erosi zituen, eta bertako izena mantentzea erabaki dute; Mikelasagasti izenez ezagutuko da, hortaz.

Ateak zabaltzeko eguna

Gaur 19:00etan irekiko dituzte ateak ofizialki. Horretarako, Loatzoko Musika Eskolako dultzaineroek emango diote hasiera ekitaldiari. Jarraian agurra dantzatu eta eraikinari jarri dioten plaka bistaratuko dute Periko Peñagarikano alkateak eta Gorka Otxoa Kultura zinegotziak. Behin ateak zabalduta, barrura sartuko dira. Bertan, alkatearen hitzak entzun ostean, koroak bi abesti abestuko ditu. Ondoren, Loatzoko talde instrumentalaren txanda izango da. Dantza taldea ere ariko da antzez-tokian. Bukatzeko, Angel Mari Peñagarikano bertsoariari bertso batzuk abestuko ditu. Eta aho zapo onarekin amaitzeko, *luncha* banatuko dute.

→ Laburrak

Ezker abertzaleak herri batzarrak deitu ditu

POLITIKA › Eskualdeko hainbat herritan, ezker abertzaleak herri batzarrak deitu ditu biharko. Udal eta Foru hauteskundeetan eta herri programen inguruan hitz egingo dute. Anoetan, 11:00etan bilduko dira udaltxeko pleno aretoan. Ikaztegietan, ordu berean, Liburutegian elkartuko dira. Amezketan, 11:30ean erabilera anitzeko gela izango dira, eta Zizurkilan, 09:30ean Atxulondo kultur etxean burutuko dute batzarra. Herri guztiek dei egiten diete herritarrei, *Zure ahotsa, gure hitza!* lelopean, herri batzarretara beren iritzia eta ekarpenak egitera joateko.

Zumardiaundi berria inauguratuko dute

TOLOSA › Igandean, hilaren 27an, 18:00etatik 20:00etara Zumardiaundi berria inauguratzeko ekitaldia egingo da. Bertan, Koskorrena jaxban taldeak giroturrik, txistor pintxoak eskainiko dira gerturazten diren guztientzat. Jokin Bildarratz alkateak eta udaleko gainerako ordezkariak ere parte hartuko dute. Herritar guztiak daude gonbidatuta ekitaldira.

Gaur 'Pepinos Podridos' antzerkia Iturri-Ondon

ASTEASU › Asteasuko Iturri-Ondo jatebixean, gaur, barrea eragiten duen antzerkia ikusteko aukera izango da. *Pepinos podridos* izena du antzezlanak eta 20:00etan hasiko da. J.B. Pedradas da antzezle eta sorzailea.

Haur Koruen tailerrera doaz, Txintxarri Txikikoak

Asteburu pasa joango dira Hondarribira, eta Gipuzkoako 100 abeslarirekin batera kantatuko dute

Nerea Pikabea Alegia

Alegiako abeslari gazteenak, Haur Koruen V. Tailerlean parte hartuko dute asteburu honetan. Hondarribian izango da Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako ekimena, eta Gipuzkoako 100 abeslari elkartuko dira herriko aterpetxean. Abestiak prestatuko dituzte, eta etxerako buelta egin aurretik, kontzertu bat eskainiko dute.

Txintxarri Txiki abesbatza, tailerreko kantuak prestatzen murgilduta egon da eguberriak pasaz geroztik Idoia Iraola Azpiroz zuzendariarekin. Koruan bertan ikasten dituzte abestiak, eta gero tailerrean ematen zaie forma abestiei, tailerretarako apropos izendatutako bi zuzendariarekin.

7 eta 14 urte bitarteko abeslariak elkartuko dira, eta tailerrean adinaren arabera, haur eta gazte abesbatzekin eskarmentu handia duten Nagore Alangua eta Imanol Elizasurekin, bi taldetan banatuko dituzte.

Txintxarri Txikiren asmoak

7 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteek abesten dute Txintxarri Txiki abesbatzan. Gainera, abes-



Erriberriko Gazteluan, taldeko kide batzuk. HITZA

larietako batzuk, Loatzoko musika eskolako ikasleak dira, eta koro ikasketak musika eskolan egin beharrean, Txintxarri Txiki abesbatzan egiteko aukera dute. Maizta aldera zabalduko da izen-ematea. Ostiraletan 19:00etan entseatzeko dute, eta 18 euroko kuota ordaintzen dute urtean. Gainerako gastuak Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak hartzen ditu bere gain.

Aurtengo urterako zenbait proiektuekin lanean ari da Txintxarri Txiki abesbatza, nahiz eta oraindik ekitaldiak finkatu gabe dituen. Abesbatzaren arduradunek, beste abesbatza batekin trukea egin nahiko lukete, eta horrez gain, irteeraren bat egiteko aukera aztertzen ari dira.

→ **Laburrak****Kadete mailako Udaberri Txapelketako finalak**

IKAZTEGIETA ▶ Gipuzkoako Udaberriko Txapelketaren finalak jokatu dira, gaur, ikaztegietan. Kadeteen mailan, bi final jokatu dira, lehen eta bigarren mailan. Jaialdia 19:30ean hasiko da. Lehenengo partidari, Segura eta Zizurkilgo Ziotza elkarteak ariko dira, bigarren mailan. Bigarrenengo partidari, lehen mailako kadeteen arteko partida izango da. Intxurreko Larrea eta Ormazabal, Azkoitiko Alberdi eta Juaristiren aurka ariko dira. Bestalde, aurreko asteburuan Intxurre elkarteak Alonsok eta Esnaolak, helduen bigarren mailan, 22-21 galdu zuten Udaberri Txapelketako finala, partida borrokatuan.

Zazpi Iturrikoek Berria Txapelketaren finala, gaur

AMEZKETA ▶ Zazpi Iturri elkarteak Berria Txapelketaren finala jokatu dute, gaur, Hernaniko pilotalekuan. 19:00etan hasiko da eta Uharte-Iruñea elkartearen aurka ariko dira.

Bidaiak antolatzeko ikastaroa, Amalurren

TOLOSA ▶ Amalur jardunaldien barruan, martxoaren 28 eta 29an eta apirilaren 4 eta 5ean (zortzi ordu), bidaiak antolatzeko tailerra egingo dute. Mikel Arredondok emango du ikastaroa. Gehienez hamabost pertsonentzako izango da eta hogeituro ordaindu behar dira. Informazioa, Topic-en: 943 65 04 14 zenbakian edo www.cittolosa.com helbidean.

Omniumean Munduko Txapelketa eskuratzen saiatuko da Olaberria

Bihar eta etzi hartuko du parte txirrindulariak omniumeako sei probetan, Holandako Apeldoorn hirian

Imanol Garcia ikaztegieta

Leire Olaberria ikaztegierrak Munduko Txapelketa irabazteko aukera izango du, asteburuan, Holandako Apeldoorn hirian. Bihar eta etzi omniumean lehiatuko da, egun bakoitzean hiru

proba eginez, eta azken txapelketetan lortzen ari den emaitza onei jarraipena eman nahiko die txirrindulariak. Espainiako hautatzaileak, Juan Martinez Oliverrak, Olaberria «hiru lehenengo-artearen egiteko» gai dela dio.

Puntuazioan, bertan behera

Ikaztegierrak asteazken arratsaldean puntuazio proban parte hartu zuen. Dominen lehian sartu zen, eta tarte batez bigarren joan zen, baina azkenean Olaberriak bertan behera utzi behar izan zuen proba.

Intxurre taldekoak bigarren itzuli borobila egiten ari dira

Erregional Preferente mailako taldeak hamar partida daramatza galdu gabe; lau puntutara ditu jaitziera postuak

I. Garcia Alegia

Erregional Preferente mailako Intxurre futbol taldea bigarren itzuli bikaina egiten ari da. Hamar partida daramatza galdu gabe, eta horren ondorioz, jaitziera postuetatik atera da eta orain lau puntutara ditu. Bigarren itzuliko puntuak bakarrik kontuan hartuz gero, laugarren talderik

onena izango litzateke. Hurrengo jardunaldian Tolosa 'B' taldearen aurka jokatu du Intxurrek. Alegian jokatu dute, bihar, 16:00etan. Aipatzekoa da Imanol Irazustabarrena egiten ari den denboraldia. Nahiz eta jubenila izan, oso gol erabakigarriak sartzen ari da.

Jubenilen taldeari dagokionez, maila oso txukuna ematen ari da Kopan. Azken bi partidak irabazi dituzte. Kontuan hartu behar da jokalarri garrantzitsuak lesionatuta izan dituela taldeak. Orain, lesionatuak osatze bidean daude, eta taldeak txapelketa ondo amaituko duela uste dute elkarteko arduradunek.

Gutuna**Konpondu gabeko gertaera larriak Tolosan.**

Dagokien erakunde eta agintariari:

Tolosako bizilagun talde bat gara. Duela denbora dezente, dagoeneko gehiegi, gure auzokide baten partetik, irainak, erasoak... jasaten ari gara.

Eguneroko bizitza lasgarria da. Adibide batzuk jartzearren: labanarekin erasoak, karabina-rekin, pistolarekin...; errepikaezinez diren irainak, etengabeko probokazioak, eta abar... Errealitateak fikzioa gainditzen du berriro ere; eta, egia esan, egoera hau jasanezina izanik, era-

kunde eta agintariengandik arbuiauak sentitzen gara. Ez dago konponbiderik? Ez al daukagu inongo babes legalik?

Egoera honi konponbiderik jartzen ez bazaio, ondorio latzak eduki ditzakegu. Ez dugu sinetsi nahi, horretarako bidea ematen ari denik.

Beraz, bizilagunen arteko elkarbizitza baketsu bat ziurtatzen duen irtenbide bat eskatzen dugu. Denek merezi dugu. Justiziarren garaia da orain. Ez dezagun gehiago itxoin. Egoki jokatu beharra dago, ondoren ez kezatzeko.

■ **Imanol Azcarate**, Tolosa.

Irudia**DUATLOIAN, AURREAN**

Oñatiko Duatloia jokatu zen joan zen asteburuan, eta bertan jokoan izan zen Euskadiko Txapelketa distantzia motzean. Itsaso Leunda hernaldearra (argazkian) eta Maider Gaztañaga (ordiziarra, baina Tolosaldeko Traitloia Taldeko kidea), bigarren eta hirugarren izan ziren, nazioarteko maila duen Ainhoa Muruaren atzetik. Mutiletan, Patxi Urizar billabonatarra bigarrena izan zen. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 118. ibarraldeak@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitza/Leitza
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

KIROLA

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkarteak antolatutako 43. Mendi Ibilaldia izango da etzi. Ibilaldi luzeak 07:00etan irteno dira eta motzekoak, aldiz, 08:00etan.
■ **Tolosa.** Bihar 09:00etatik 13:00etara saskibaloieko neska eta mutilen partidak Usabalgo goiko kantxan. Leku berean 16:00etik 17:30era Laskorain-Orioko areto futboleko partida; eta 18:00etatik 19:00etara Bide Bide Ibizta-Mondragon saskibalo partida. Beheko kantxan 12:00etatik 13:00etara berriz, eskubaloiko Tolosa-Ereintza partida; eta 16:00etatik 17:30etik Take Orbela-BKL saskibalo partida. Futboleko partidak ere izango dira egun osoan zehar. Berazubin bihar, 12:30ean Tolosa-Romo eta 17:00etan Tolosa-Aurrera Ondarroa.

DEIALDIK

■ **Ibarra.** Bai Euskal Herriarik antolatuta bokata tertulia izango da gaur, 21:00etan Gaztetxean. Bertan, Euskal Herriko immigrazioa eta emigrazioa aztertuko dute hainbat ikuspuntutatik. Tertuliaren moderatzailea Mikel Ozaita Axerri izango da. Bokata eta edaria norberak eramateko eskatu dute antolatzaileek.
■ **Leitza.** *Geure burua ezagutzen eta maitatzen* tailerren jarraipena gaur izango da 21:00etan. Urko Arozenak eskainiko du saioa. «Norberak bere kabuz egindakoa baloratze eta errepasatzeko aukera

bikaina» dela argitu dute antolatzaileek.

■ **Leitza.** Kiroldegiak eskalada ikastaroa antolatu du 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat. Ikastaroa hilaren 26ean, apirilaren 2, 9 eta 16an, eta maiatzaren 7an izango da 09:00etatik 13:00etara. Izena Kiroldegian bertan eman daiteke, eta gaur da azken eguna.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Bihar 22:30ean *El discurso del rey*; etzi 17:00etan *Scott Pilgrim contra el mundo*, eta 19:30ean eta 22:00etan *El discurso del rey*; eta astelehenean, ikuslearen eguna, *El discurso del rey* 20:30ean.
■ **Villabona.** Bihar 19:30ean eta 22:15ean *Más allá de la vida*; etzi 16:30ean *Adele y el misterio dela momia* eta 19:30ean *Más allá de la vida*; eta astelehenean 21:30ean *Más allá de la vida*.

Agurak



Zorionak!
Eneritz Gastesi Tolosa eta Uxue Gastesi Tolosa. Zurte! Zorionak eta muxuak etxekoan partetik eta batez ere, Oierren partetik.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo ka-

lea, 20. Telefono zenbakia: 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



ZUHAITZ EGUNA SAMANIEGO ESKOLAN

Urtero udaberriaren etorrerarekin batera iristen da Zuhaitz Eguna gurera, martxoaren 21ean, alegia. Tolosan ere ekitaldi ugari egin dira azken egunetan eta horietako bat, Samaniego ikastetxeak izan da. Asteazkenean ospatu zuten eskolako

gazteek zuhaitzaren eguna. Ingurumen Batzordeko ikasleek bertako zuhaitz hostozabalak landatzeko aukera izan zuten, eguraldiak ere lagunduta. Irakasleen esanetan «gogotsu» egin zuten lan gazteek. HITZA

Abertzaletasunetik eta adierazketatik munduari irribat. Eker abertzaletasunetik eta 100. mendearen eker pibit eta zahara erakusten.

**IREKI BIDEA
EZKERRARI**

aralar